



IKASTETXEA

IZENPEK jakinarazten dizu

- ✓ Dokumentu honen xedea da ziurtagiria eskatzeko prozedura erraztea eta ziurtagiri mota hauetako bakoitzerako zer dokumentazio aurkeztu behar den zehaztea,
 - Ordezkariarena
 - Entitatea identifikatzen du.
 - Bertan identifikatzen den pertsona fisikoari elektronikoki sinatzeko aukera ematen dio (pertsona fisiko hori izango da legezko ordezkarria, edo sozietatea administrazioen aurrean orokorrean ordezkatzeko ahalduna, edo berariaz ordezkatzeko ahalduna).
 - Profesionalarena (langilea),
 - Entitatea identifikatzen du.
 - Bertan kargu edo postu bat betetzen duen eta identifikatzen den pertsona fisikoari modu elektronikoan sinatzeko aukera ematen dio.
 - Entitate-ziqiluarena
 - Entitatea identifikatzen du.
 - Zigilu elektronikoak sortzeko aukera ematen du.
 - Pertsona fisiko eskatzaileak legezko ordezkariaren izaera izango du.
- ✓ Dokumentu hau aintzat hartu behar da www.izenpe.com web-gunean argitara emandako ziurtagiri mota bakoitzerako *Ziurtapen Politikaren* barruan eta, zehazki, *ziurtagiriaren bizi-zikloari* buruzko atalean adierazitakoari dagokionez.

1 ZIURTAGIAREN BIZI ZIKLOA

1.1 Identitatea egiaztatzea eta ziurtagiria eskatzea

Eskara honela sinatu ahal izango da:

➤ Bertaratuta.

Eskatzaileak

- www.izenpe.com web-gunera sartu, eta *ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* osatuko du.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko du, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- *Eskaerako* formularioa beteko du eta ziurtagiria *erabiltzeko terminoak eta baimenak* onartuko ditu.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du IZENPE SArean helbidera –TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ–.
- Indarrean diren dokumentu hauen bidez identifikatuko da,
 - Espainiako hiritarra bada, NANarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.
 - Europar Batasuneko/Europako Esparru Ekonomikoko hiritarra bada, AIZrekin eta pasaportearekin edo haien herrialdean baliokidea den nortasun-agiri nazionalarekin.
 - Europar Batasunaz kanpoko hiritarra bada, AIZarekin eta pasaportearekin.

Eskatzailearen identifikazioa ezin bada goian adierazitako moduan egin, IZENPEK zehaztuko du kasuak kasu identifikaziorako beharrezkoa den dokumentazioa.



IKASTETXEAK

Eskatzaileak identifikazio-dokumentuen fotokopia gehitu beharko du, edo IZENPEri baimena eman beharko dio datuak Administrazio eskudunaren aurrean egiaztatzeko, eskaera-formularioaren bitartez.

➤ Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren sinadura notarioak egiaztatzea.

Eskatzailea

- Ziurtagiria jaulkitzeko eskaera osatu eta sinatuko du.
- Ziurtagiria erabiltzeko terminoak eta baldintzak onartuko ditu.
- Notarioak eskaeraren sinadura legitimatuko du.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko du, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du **IZENPE SAre**n helbidera –**TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ**–.

➤ Edo indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu bidez.

Eskatzailea

- Eskatzailea www.izenpe.com web-gunera sartuko da, eta ziurtagiria jaulkitzeko eskaera sinatuko du eNAN bidez, pertsona fisikoaren ziurtagiri kualifikatu bidez edo entitatearen ziurtagiri bidez edo nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiri bidez, IZENPEk jaulkitakoak biak.
- Ziurtagiria erabiltzeko terminoak eta baldintzak onartuko ditu.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko du, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du **IZENPE SAre**n helbidera –**TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ**–.

1.2 Antolakunde eskatzailearen egiaztagiria eta eskatzailearen ahalordeak

Hauek aurkeztu beharko dira:

- Antolakundearen IFZ: jatorrizkoa eta kopia.
Ziurtagiriaren lehen jaulkipenean soilik aurkeztuko da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion erregistroaren jatorrizko ziurtagiria, ziurtagiria eskatzen den egunaren aurreko hamar egun baliodunetan ikastetxearen inskripzioa egiaztatzeko jaulkitakoa:
- Eskatzailearen ahalmena,
 - Unibertsitateaz kanpoko ikastetxea: eskatzailearen ahalmenaren egiaztagiriaren kopia, karguaren indarraldia egiaztatuko duen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.
 - Unibertsitateko ikastetxea (PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK): eskatzaileari eskatutako ahalmena egiaztatzeko idazkariak/letratuak jaulkitako jatorrizko egiaztagiria.

Eskatutako ahalmena,

- Legezko ordezkaria.
- Ordezkaritza mankomunatu,
 - Eskatzaileak administratzaile mankomunatuaren nortasuna eta haien jarduteko modua egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du.



IKASTETXEAK

- Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran, administratzaile mankomunatu bakoitzaren sinadura jasoarazi beharko da identifikazio-dokumentuaren zenbakiarekin batera (indarrean dagoen NANA, pasaportearen edo gidabaimena, AIZ).
- Edo [ordezkatzeko ahaldu orokor](#) gisa, ahalmen inskribatua duena ikastetxea mota guztietako pertsona pribatu edo publikoen aurrean ordezkatzeko.

OHARRA:

- Eusko Jaurlaritzaren erregistroan inskribatutako unibertsitate ez diren ikastetxeen kasuan, IZENPEk bere gain hartuko du erakundea egiaztatzea eta eskatzailearen ahalmenak egiaztatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren [mendeko ikastetxeek](#) ezin izango dute *entitate-zigiluaren* ziurtagiririk eskatu. Zuzendariaren sinadura eskatzen duten egintzetan, zuzendariaren herritarraren ziurtagiria edo NAN elektronikoa erabili beharko dute.

1.3 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura

IZENPEk ziurtagiria jaulkitzeari ekingo dio,

- [Emateko moduaren arabera](#)
 - [Aurrez aurre](#), erregistro-entitatean bertaratuta.
 - Eskatzailea.
 - Edo eskatzaileak baimendutako hirugarren bat, eta horrek IZENPEri aurkeztu beharko dizkio,
 - *Ziurtagiria jaulkitzeko eskaera*, paperean, sinatuta, eta sinadura notario aurrean legitimatuta.
 - Hirugarren bati ziurtagiria jasotzeko baimena ematearen dokumentua, notario aurrean sinatuta eta legitimatuta.
 - [Bertaratuta ez](#), baizik eta adierazitako posta-helbidera edo helbide elektronikora bidalita,
 - Eskaeraren sinadura elektronikoa.
 - Edo *ziurtagiria jaulkitzeko eskaera*, paperean, sinatuta, eta sinadura notario aurrean legitimatuta.
- [Hautatutako euskarriaren arabera.](#)

ZIURTAGIRIA	EUSKARRIA
ORDEZKARIA	<p>TXARTELA / TOKEN USB-A</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Bertaratuta ematea. IZENPEk ziurtagiria jaulkiko du, eta eskatzaileari edo hirugarren baimenduari PINa eta desblokeatzeko kodea (PUKa) emango dio, eta eskatzaileak ziurtagiria jaso izanaren egiaztatzea sinatu beharko du.➤ Bertaratu gabe ematea. IZENPEk bi bidalketa bereizitan igorriko ditu ziurtagiria eta gakoak <i>ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran</i> adierazitako posta-helbidera, eta bidalketaren gastuak entitate eskatzailearen kargura izango dira.



IKASTETXEAK

PROFESIONALA	<p>TXARTELA / TOKEN USB-A</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Bertaratuta ematea. IZENPEk ziurtagiria jaulkiko du, eta eskatzaileari edo hirugarren baimenduari PINa eta desblokeatzeko kodea (PUKa) emango dio, eta eskatzaileak ziurtagiria jaso izanaren egiaztagiria sinatu beharko du.➤ Bertaratu gabe ematea. IZENPEk bi bidalketa bereizitan igorriko ditu ziurtagiria eta gakoak <i>ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran</i> adierazitako posta-helbidera, eta bidalketaren gastuak entitate eskatzailearen kargura izango dira. <p>HSMa</p> <ol style="list-style-type: none">1. HSMa sortuko du ziurtagiria.2. Erabiltzaile bat eta pasahitz bat sortuko du, eta gakoan edukitzaileari soilik ematen zaizkiola bermatuko du.3. Mezu elektronikoa bidaliko du <i>ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran</i> adierazitako helbidera, hura erabiltzeko argibideekin batera.
ENTITATE ZIGILUA	<p>EDUKITZAILEA</p> <ul style="list-style-type: none">➤ IZENPEk eskatzaileari softwarearen deskarga adieraziko dio, eta ziurtagiriaren eskaera teknikoa sortzeko gida bidaliko dio.

2 ZENBATEKOA

IZENPEk urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak bere www.izenpe.com web-gunean.

Ordaintzeko eskaintzen diren aukerak:

- Elektronikoki sinatutako jaulkipen-eskaeraren kasuan,
 - On line ordainketa, ordainketa-pasabidearen bitartez.
 - Ordainketa-agiri bidez, banku-entitatean aurkezteko.
- Erregistro-entitatean bertarutzen den kasuan, eskatzaileak banku-txartelaren bidez ordain dezake ziurtagiria.



IKASTETXEAK

ERANSKINA_HIRUGARREN BATEK ZIURTAGIRIA JASOTZEKO BAIMENAREN EREDUA

IZENPEk honako hau **jakinarazten** dizu:

- Dokumentu honen helburua dela hirugarren bati ziurtagiria jasotzeko zuzendutako baimenaren balizko eredu bati buruzko argibideak ematea erabiltzaileari.
- Baimena notario aurrean eman beharko dela eta pertsona baimen-emailearen sinadurak legitimatuta egon beharko duela.

_____ jaunak/andreak (ziurtagiriaren eskatzaileak)

BAIMENTZEN DIO

_____ jaunari/andreari
(ziurtagiria eskatzeko pertsona baimenduari) NAN _____ duenari, dokumentu honi gehitzen zaion eskaeraren esparruan, bere izenean jasotzeko:

- Sinadura elektronikoko ziurtagiria, PINa, PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) eta telefono bidezko identifikaziorako pasahitza jasotzen duen orria, eskatzaileari osorik emateko.
- Erregistro kode bakarra (EKB), nabigatzailearen edo gailu mugikorren euskarrian jaulkitako ziurtagirien kasuan.
- Erabiltzailea eta pasahitza, Egoitz@n jaulkitakoa bada.

Baimen horren ondorioz, IZENPEk ez du zaintzan eta, ondorengo, entregan izan daitezkeen inguruabarretan inolako erantzukizunik izango.

Aurrekoa irakurri eta horrekin ados egonik, nirekin sinatu du.

Notarioa

Data eta sinadura

Baimen-emailea

Data eta sinadura